



2020ko Kudeaketa Plana

2020. URTEKO KUDEAKETA PLANA

EDUKIA

SARRERA	1
1. ILDO ESTRATEGIKOAK	2
2. KALITATEAREN ETA SISTEMEN KUDEAKETA	32
3. LAN ARLOKO ARAUDIA	35
4. GASTU KORRONTE OSOAREN AURREKONTUA.....	42

SARRERA

Udal legealdi berri baten hasiera dakar 2020ak, eta DEBEGESAK bere hogeita hamalagarren Kudeaketa Plana aurkezten du.

Erronka garrantzitsua dakarkigu aurtengoak, lurralde-posizionamenduko estrategia hedatzea, Basque Precision Technology District – BPTD, baita BPTD Enpresa Elkartearen idazkaritza teknikoa kudeatzea ere. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako aukera bikaina, doitasun-teknologietan oinarritutako industria-jarduera hobeto sustatzeko.

Egia da moteltze ekonomiko nabarmenarekin agurtu dela 2019. urtea, baina aipatutako lankidetzarako aukera horrekin, eta Administrazio Kontseiluaren orientazio argiarekin, DEBEGESAK indartu egiten du berrindustrializaziorako, oro har jarduera ekonomikoa handitzeko (bigarren eta hirugarren sektoreak), langabezia digitu bakarrera murrizteko eta, lehen azaldutako helburuak elkarlanean betetzeko, beste eragile ekonomiko eta sozial batzuekiko lankidetzaren handiagoak ezartzeko bere bokazioa.

Legealdi honetarako, **lurralde-orekako** hainbat ekintza positibo ari zaie eskatzen Debabarrena goragoko administrazioei, gure udalerrien hiri-berroneratzea ahalbideratuko dutenak, hazkunde ekonomiko handiagoa lortzeko – industria arloan batez ere– eta biztanleria eta (pertsonek) talentua mantentzeko.

2018-2022 aldirako Ekintza Plana martxan jartzen jarraituko dugu 2020an; aurrez zegoen Debabarrenaren Garapen Jasangarrirako Estrategiaren Ekintza Planaren (2020) berrikuspenetik sortutakoa da azkeneko ekintza plan hori. Eskualde mailako ondorengo **proiektu estrategikoak** proposatu zituen lehenengo plan hark:

- ❖ DEBABARRENA, INDUSTRIA-LURRALDE LEHIAKOR ETA BERRITZAILEA
- ❖ NATURA- ETA KULTURA-TURISMOA: DEBABARRENA HELMUGA
- ❖ DEBA IBAIA, ESKUALDEAREN ARDATZA
- ❖ ESKUALDEKO BURUAREN HIRI-BERRONERATZE JASANGARRIRANTZ
- ❖ DEBABARRENA, ENERGIA ADIMENTSUA
- ❖ MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN TRENERA IGOTZEA
- ❖ GURE BALIOAK
- ❖ ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA


Jarraian, proiektuak aipatzen dira, aipatutako proiektu estrategikoen proposatutako ildo estrategikoen arabera azalduta. 2020rako Kudeaketa Plan honetan, Debabarreneko Plan Estrategikoaren ereduari jarraiki garatu beharreko jarduketak jasotzen dira.

1. ILDO ESTRATEGIKOAK

1.1. GOBERNANTZA-EREDU BERRI BATERANTZ AURRERA EGITEA


Debegesa 1994az geroztik ari da hausnarketa estrategikoak egiten; horien diseinuan, sustapenean eta garapenean eskualdeko eragileen inplikazioa lortzea izan da erronka nagusia, eta ahalegin berezia egin da Planaren azkeneko berrikuspenean. 2022. urtera arteko indarraldia du plan horrek. Testuinguru horretan, eta orain arte lurralde mailan eta, zehazki, GipuzkoaLab ekimenaren barruan egindako lanari jarraitutasuna emanez, Lurralde Garapeneko Laborategian (LabDT) maila anitzeko gobernantza-eredua eraikitzen ari da, eta horren bitartez, lurralde garapena bultzatzen duten programak eta jarduketak bultzatzen dira.

Gaur egun, hauxe da Debegesaren gobernantza-eredua:



Testuinguru horretan, Eskualde Arteko Mahaian, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eskualdeko Garapen Agentziek 2017ko ekainaren 2an sinatutako Hitzarmenean arautzen den organoan, eskualde mailako gobernantza-egiturak sortzea erabaki zen, eskualde bakoitzean eta Lurralde Garapeneko Laborategietan landutako lan-ildoak garatzeko.

Hauxe da 2020rako lortu beharreko eredia:



1.2. DEBABARRENA BERRINDUSTRIALIZATZEKO EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA JASANGARRIA SUSTATZEA, INDUSTRIA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA

Bizi garen globalizazio-testuingurua kontuan hartuta, ildo estrategiko honen barruan garatu beharreko programak eta ekintzak behar bezala diseinatzeko, funtsezkoak dira 2020. urtera begirako aurreikuspen ekonomikoa.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) beherantz zuzendu ditu 2019rako eta 2020rako mundu mailako hazkunde-aurreikuspenak, hamarraldiko mailarik txikienera arte, ziurgabetasun ekonomiko eta politikoaren eraginez (Iturria: Bi urtez behingo Txostena – ELGE erakundearen aurreikuspen ekonomikoa).

Hain zuzen ere, % 2,9ra arte zuzendu du ELGEk mundu mailako barne-produktu gordinaren (BPG) 2019rako hazkundera –hiru hamarren gutxiago–, eta lau hamarrenekoa izanda 2020rako doikuntza, % 3ra artekoa.

Eskualdeko industria-sarerako funtsezkoa da Alemaniaren bilakaera, eta herrialde horren 2020. urterako hazkunde-aurreikuspenak (% 0,6) hamarren bat soilik igoko dira 2019. urtearekiko.

Euskadiri dagokionez, BPG 2019an % 2,2 eta 2020an % 2,0 haziko dela aurreikusten da (Iturria: BBVA Research).

Arazo globalek (AEB-Txina gerra komertziala, Brexita...) eragin dute geldialdi- edo moteltze-egoera hori; arazo horiek berehala izaten dute inpaktua tokian tokiko ekonomietan.

Horregatik guztiagatik, Eskualdeko Garapen Agentzian industria-sareari laguntzeko eta hura garatzeko estrategia bat definitzera eta gauzatzera bideratuko ditugu gure ahaleginak (ikuspegi estrategikoa) eta, aldi berean, baita enpresei berrikuntza-proiektuetan, 4.0 teknologiak aplikatzen, atzerrira irekitzen talentua eskuratzen... lagunduko dieten berariazko ekintzak garatzera ere (ikuspuntu operatiboa).

Eta maila makroago batean, eskualdeaz gaindiko mailan lan egingo dugu, Debabarrena enpresa-inbertsiorako lurralde erakargarri gisa posizionatzeko. Bi helburu nagusirekin, batetik, gaur egun dauden enpresak Debabarrena garatu eta hazi daitezela, bestea, ezar daitezela eskualdean gure enpresa-egitura aberastuko duten enpresa berriak.

Debabarreneko Industria-lehiakortasunerako 2018-2021 aldirako Planak ezarritako gidalerroei jarraiki garatuko da hori guztia.

Debabarrenak, industria-izaerako eskualdea den aldetik, dituen misioa, ikuspegia eta jarduteko printzipioak jasotzen ditu, etorkizunera begirako eskualdearen posizionamendua ezartzen du, jarduera ekonomikoko segmentu ezberdinen arabera, eta ardatz, helburu eta ildo estrategikoen inguruan antolatutako etorkizuneko estrategia bat definitzen du.

Gainera, arreta berezia eskainiko diogu DEBABARRENEKO INDUSTRIA-EREDUA BERRENORATZEN laguntzen duten ekimenak garatzeari. Zehazki:

1.2.1. DEBABARRENA, ESKUALDE ERAKARGARRI ETA BEREIZIA

Lehenengo ekimen honetan, bi helburu daude:

1. Helburua. Eskualdea posizionatzeko BPTD estrategia garatzea



BPTD estrategia zabaltzean oinarritzen da Debabarrena erreferentziatzeko industria-eskualde izateko posizionamendu estrategikoa. Helburu nagusia da Debabarrena enpresa-arloan eskualde erakargarria izan dadin lortzea. Barne-ikuspegi batetik (dauden enpresentzako eskualde interesgarria izatea) zein kanpo-ikuspegitik (eskualdetik kanpoko eragileen inbertsioa erakartzea).

Horretarako, eskualdeko ekosistema osoarekin lan egin behar dugu: industria-enpresak, zentro teknologikoak, ikastetxeak eta bestelako erakundeak. Baita Debabarrenan garrantzi handia duten eskualdez gaindiko erakundeekin ere, hala nola AEFM, ACICAE...

Posizionamendu hori lortzeko, ondorengo ekintzak landuko dira:

I. BPTD Kudeaketa-eredua garatzea eta finkatzea

Gobernantza-eredu berriaren pean garatuko da strategiaren kudeaketa-eredua, eta 2018-2021 aldirako Lehiakortasun Planean dauden jarduketak asko hartuko ditu bere gain. Jarduketak nagusiak izango dira:

- ❖ Kudeaketa-eredua definitzea.
- ❖ Egindako hausnarketa estrategikoan jasotako jarduketak martxan jartzea.
- ❖ Enpresen eta erakundeen leialtasuna lortzeko jarduketak zabaltzea eta horien jarraipena egitea.
- ❖ BPTD kanpo-posizionamendua (distritua Euskaditik kanpo proiektatzea).

II. BPTD Komunikazio Plana egikaritzea

- ❖ Webgunea mantentzea.
- ❖ Enpresek egiten duten logoa/irudiaren erabilera monitorizatzea.
- ❖ Komunikazio-jarduketa osagarriak

III. BPTDra industria-inbertsioak erakartzeko estrategia definitzea

Funtsezko ekintza da hori strategiaren garapenean. 2020. urtean, kanpo-aholkularitza izango dugu, Debarrenara jarduera ekonomikoa erakartzea lortzeko Jarduketa Plana definitzeko, betiere definitutako helburuarekin bat etorriko dena.

2. Helburua. Debarrenari balioa ematea, bizitzeko lurralde erakargarri gisa

Helburu horrekin lotutako ekintzak eta jarduketak Laugarren Ildo Estrategikoan garatzen dira: HIRI-BERRIKUNTZA JASANGARRI ETA INTEGRATURANTZ: ESKUALDEKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO DEGRADATUEN BERRIKUNTZA SUSTATZEA.

Kasu honetan, helburu horren inpaktua degradatutako espazioak (garai batean industria-erabilera zutenak) berroneratzean ikusiko da, teknologiarekin lotutako jarduera ekonomikoaren okupaziorako azalera handiagoa izateko helburuz.

1.2.2. ESKUALDEKO TALENTUA SUSTATZEA

Helburu horrekin lotutako ildoak eta jarduketak Hirugarren Ildo Estrategikoan garatzen dira: "DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA". Enpresen garapenean duen inpaktu estrategikoagatik, 2020an ondorengo zabalkundea egingo dela nabarmentzen dugu:

1. Helburua. Eskualdeko industria-sektorerara gaitutako pertsonak erakartzea, etorkizuneko erronkei erantzuteko

I. Talentuaren kudeaketa: talentua sortzeko eta mantentzeko eskualde-estrategia bat diseinatzea

Bokazioak sustatzeko STEAM eskualde-estrategiak jauzi esanguratsua egin du 2019an, STEAM Debarrenara sarean interes-taldeekin egindako lanari esker.

Kontzeptua zabaldu dugu, eta STEAM diziplinetan trebatzea bizi garen ingurunea eraldatzeko trebatzea, gizarteari laguntzea, erronken aurrean irtenbideak bilatzea... dela transmititu nahi dugu. Alderdi humanistaren eta sortzailearen garrantzia nabarmendu nahi dugu, ikuspuntu integral batetik, beharrezkoa baita alderdi hori STEAM bokazioak garatzeko.



Marka osoa da (robotikako tailerrak eta txapelketa –Gazterobotika–, STEAM bokazioak sustatzeko udal espazio iraunkorrak... barne hartzen dituena), eta marka horren azpian, era horretako bokazioenganako interesa piztu nahi dugu, oso kontuan hartuta neskak, eta haur etorkinak.

Gazte Robotika. Hezkuntza-robotikako Euskadiko IV. Txapelketa

Azkeneko urteotan, alor zientifiko-teknologikoan bokazio berriak sustatzeko ahalegin handia egin dute udalerriek. Horren adibide argia dira Debabarreneko hainbat udalek sustatutako ekimenak (udako tailerrak, urte osokoak, ikastetxe iraunkorrak...).

Egindako jarduketan artean sartzen da Robotikako Txapelketa ere; hiru edizio jokatu dira dagoeneko, eta eskualdeko 300 bat haurrek hartu dute parte. Ekimen arrakastatsua den arren, uste dugu beharrezkoa dela jarduera hori planteatzeko moduari buruzko baterako hausnarketa egitea, BPTD Makers delakoaren esparrua kontuan izanda.

Horregatik, 2019ko azkeneko hiruhilekoan, hausnarketa bat egingo dugu udalekin eta beste erakunde batzuekin, 2020an eskualde mailan garatuko ditugun jarduketak definitzeko.

1.2.3. ESKUALDEKO INDUSTRIA-EREDUARI LAGUNTZEA

1. Helburua. Enpresa-ekimen berriak sortzen laguntzea

Honako ekintza hauek egingo dira:

I. Enpresa-ekimen berriak sortzen laguntzea

2019an, gure udalerriari balio erantsia emango dieten ideia berritzaileak dituzten ekintzaileei zuzendutako zerbitzu- eta tresna-sorta bat eskaintzera bideratutako hausnarketa-prozesua egin dugu. 2020an zabalduko da prozesu hori; maila indibidualako zein talde mailako ekintzak jasoko ditu.

Gainera, eskualdeko udalek, Lanbide Heziketako ikastetxeek, Bic Gipuzkoak eta Debegesak osatzen duten eskualdeko Ekintzailetza Foroaren barruan (misioa: industria alorrean jarduera ekonomikoa sortzen laguntzea), eragileen artean koordinatutako ekintzak ezarri dira. Zehazki:

- ❖ Jarduketan egutegi komuna diseinatzea eta komunikatzea.
- ❖ Sektore horretako ekintzaileei zuzendutako ikastaroa (2020ko lehen hiruhilekotik aurrera)
- ❖ Udal laguntzen deialdiei buruzko hausnarketa, aurrez aipatutako ikastaroa egitearekin lotuz.

Estrategia hori garatzeko, funtsezkoa da baliabide egokiak izatea, besteak beste, enpresa-ekimen berrietarako haztegiko espazioak. Enpresa-haztegiko espazioak dituzten eskualdeko udal guztiekin kolaboratzen du Debegesa: enpresa berriak sortzeko gure laguntza-zerbitzuetara jotzen duten pertsona guztiei informazioa emanez. Hain zuzen ere, Ermuan (Izarra Centre) eta Eibarren (Eibarguena) dauden espazioen berri ematen diegu ekintzaile guztiei. Gainera, Eibarko Udalaren Eibarguena haztegiaren kudeaketaz arduratzen gara.

Horrez gain, 2020an ere emango dugu **Eibarren, Elgoibarren, Ermuan eta Mutrikun** ekintzailetzarako dauden laguntzen berri, eta horiek kudeatzeaz arduratuko gara.

Ildo horretan, **ideia garatzera eta jarduera martxan jartzera** bideratutako Lanbideren programak ere kudeatuko ditugu, enpresa-ideia edota proiektu bat duten eta aholkularitza osagarria behar duten ekintzaileei aholkularitza espezializatua emanez.

II. Belaunaldi arteko erreleboan laguntzea

Enpresen jabetzan/kudeaketan dagoen belaunaldi arteko errelebo falta arazo kritikoa da, enpresa alorrean eskualde indartsua izateko helburuari dagokionez.

Debegesan berriazko aholkularitza eskaintzen diegu beren “negozioa eskualdatu” nahi duten pertsoneri, zein negozio horiez arduratu nahi dutenei.

Prozesu horretan, eta proiektua Gizarte Ekonomiaren formularekin aurrera eraman badaiteke, ASLE Euskadiko Lan Enpresen Elkartearen aholkularitza izango dugu, besteak beste.

2. Helburua. Debabarreneko industria-enpresen lehiakortasuna bultzatzea

Helburu horren barruan, sektore horretako enpresei hainbat zerbitzu eskaintzen jarraituko dugu:

- ❖ Laguntzen eta diru-laguntzen alerta-zerbitzua: helburua da Debabarreneko enpresa guztiei dituzten inbertsioko eta lehiakortasuna hobetzeko enpresa-proiektuak garatzen lagun diezaieketen laguntzen eta diru-laguntzen (udalenak eta udalez gaindikoak) berri ematea. Deialdiren bat argitaratzen den bakoitzean, mezu labur bat bidaltzen diegu, diru-laguntzaren alderdi nagusien berri emanez; eta hala eskatzen duten enpresei, dekretuaren laburpen-txosten bat bidaltzen diegu.
- ❖ OSTIRALAK DEBEGESAN. 2020an, gure enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako 12 jardunaldi antolatuko dugu. Beti bezala, formatu laburrekoak, erabilgarriak, eta enpresen lehiakortasunerako funtsezkoak diren gaietan oinarrituz. 4.0 industriarekin lotutako gaiari arreta berezia eskaintzen jarraituko dugu: digitalizazioa, robotika, automobilgintza...
- ❖ INDUSTRIA-ENPRESEN GIDA (OROKORRA); 580 enpresa baino gehiagok hartzen du parte gida horretan.
- ❖ BASQUE PRECISION TECHNOLOGY DISTRICT ENPRESA-GIDA. Doikuntza-teknologietan diharduten enpresen berriazko datu-basea; enpresek dituzten teknologien eta ekoizpen-bitartekoen arabera egin daitezke bilaketak.
- ❖ HAZINNOVA PROGRAMA, Debabarreneko enpresetan teknologikoak ez diren berrikuntza-proiektuak identifikatzera bideratuta dagoena. Innobasque eta SPRIren eskutik zabalduko dugu programa hau hazteko gogoia duten eskualdeko 20 enpresatan, produktuaren, prozesuaren, marketinaren eta antolaketaren alorretan proiektuak “aktibatze” helburuz.

Ekintzak:

I. Debabarreneko enpresa-sarean digitalizazioa bultzatzea

Bi jarduketa egongo dira horretarako:

- a) Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak 4.0 Industriaren eredura hurbiltzea

Aurten, 4.0 industriaren aplikazioaren alorrean, teknologia horiek industria alorreko enpresa txiki eta ertainetan sartzen lagunduko duten jarduketak garatzen jarraituko dugu. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin egingo dugu hori,

Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak 4.0 Industriaren eredura hurbiltzeko Tokiko Garapen Agentziekin lankidetzan garatutako Programaren bitartez.

Aipatu dugun bezala, Gipuzkoaren lurralde-garapenean laguntzeko programa da, industriaren alorreko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetuz, bai eta 4.0 industriara hurbiltzekoa ere.

Helburua da parte hartzen duten enpresak Fabrikazio Aurreratuaren eta 4.0 Industriaren eredian sartzea, teknologia horiek sartuta, enpresa txiki eta ertainei lehiakortasunari dagozkion hobekuntzak egiten hasteko aukera emango dieten ibilbide pertsonalizatuak definitzea eta horien jarraipena egitea bultzatuz.

Lau enpresarekin lan egingo da, teknologiak sartzeko prozesuaren garapena eta jarraipena egiten lagunduz.

b) Debabarrena Robotika

“Debegesa- Debabarrena Robotika II. Fasea. Eskualdearen Eraldaketa” proiektuak xehetasunez aztertuko ditu (teknikoki, ekonomikoki eta alderdi finantzarioari dagokionez) “Debabarrena Robotikarako proiektu-sorta definitzeko proposamena (2018-2019)” proiektuan identifikatutako zerbitzu- eta proiektu-sorta, garapen-fasean sortzen diren beste proiektu batzuekin osatu ahal izango dena.

Ondoren, gara daitezkeen proiektuak aukeratu eta aztertuko dira, haien bideragarritasuna ikusteko helburuz. “Robotikaren eta automatizazioaren kontzeptualizazioa, eta hori Debabarreneko industria-sektorean indartzeko **gakoak**” txostenean definitutako 5 ildo strategiengan zuzeneko eragina duten proiektuei emango zaie lehentasuna:

- ❖ Robotikaren eta automatizazioaren sektorea finkatzea, merkatuak eskatzen dituen soluzioekin lotutako apustu estrategikoen bitartez.
- ❖ Robotikako eta automatizazioko sistemen inguruko berrikuntza teknologiko maila handitzea, eta eskualdearen industria-eraldaketaren aldeko apustua egitea.
- ❖ Enpresa barneko zein enpresen arteko lankidetzak-ereduak bultzatzea, robotikaren eta automatizazioaren inguruko gaitasunak eta sinergiak aprobetxatzeko.
- ❖ Debabarreneko enpresak eta soluzio robotikoak merkatu berrietara irekitzeko aukera emango duten gaitasun komertzialak garatzea.
- ❖ Robotikako eta automatizazioko prestakuntza-maila handitzea, hezkuntzako eta prestakuntzako maila guztietan.

Programaren helburua da eskualdearen eraldaketa bultzatzea, eskualdean industria- eta/edo zerbitzu-robotikan lehiakortasun-abantailak eraikitzeko eta garatzeko, industria-sareko eragileen aniztasuna kontuan hartuta: enpresak, Basque Precision Technology District enpresa-elkartea, ikastetxeak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, etab.

Hainbat ekintza egingo da, hala nola:

- ❖ Proiektuak identifikatzea eta analizatzea: Jarraipen Batzordea finkatu, proiektu-sorta indartu/finkatu, gauzatuko diren proiektuak aukeratu, eta gauzatutako proiektuen analisi tekniko, ekonomikoa eta finantzarioa egin.

- ❖ Debarrena Robotikaren bulego teknikoari laguntzea. Proiektua kudeatzeko eta eskualdeko enpresak sentsibilizatzeko bulegoa.

II. Enpresa-jarduera berritzaile berria bultzatzea, bai goraka doazen sektoreetan, bai Debarrenean garatzeko aukerak dituzten sektoreetan

lido horretan, enpresa-dibertsifikaziorako joera duten hiru jarduketa batuko ditugu:

a) Nekazaritzako elikagaien sektorea- Gure Market

Proiektuaren helburu nagusia da, Elikagaien Industriaren Sektorearen bitartez Oarsoaldean, Debarrenean eta Tolosaldean balioa sortzea, Gipuzkoa Euskadi mailan Elikagaigintzan erreferente bihurtuz. 2020an, Gure Market jarduera bultzatuko da sare sozialetan, eta Gure Market Komunitatea sortuko da. Eskualdeen arteko lankidetzeta eta baterako ikaskuntza sustatuz, lehentasunezko helburua da lankidetzan garatzeko proiektuak identifikatzea, elikagai-industriaren sektoreko enpresek gara ditzaketenak.

Horrela, nekazaritzako elikagaien industriaren sektoreko enpresak eta sektore horrekin lotutako proiektuak bultzatu nahi dira.

Hainbat ekintza egingo da:

- ❖ Kudeaketa, koordinazioa eta martxan jartzea.
- ❖ Sare sozialetan Gure Market aktibatzea.
- ❖ Eskualdeen arteko lankidetzeta sustatzea.
- ❖ Baterako ikaskuntza sustatzea.
- ❖ Zabalkundea eta komunikazioa.
- ❖ Jarraipena, ebaluazioa eta itxiera.

b) Biztanleriaren zahartzearekin lotutako negozio-aukerak

Proiektuaren fase honetan lortu nahi den helburu nagusia da zahartze aktibo eta osasungarriaren inguruko Eskualdeko Silver Market Place diseinatzea eta dinamizatzea.

Proiektu horren helburu operatiboak dira:

- ❖ Eragile publiko eta pribatuen eskualdeko sarea sendotzea
- ❖ Adinberri lurralde-estrategiaren proiektu eta estrategietarako katalizatzaile gisa balio izatea.
- ❖ Berrikuntza-eredu ireki bat sistematizatzea, zahartze aktibo eta osasungarriaren eskualdeko ekosistemako eragileen arteko lankidetzari bide emanez.
- ❖ Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa bultzatzea (ekintzaitza barne-ekintzaitzetan).

- ❖ Eskualdetik kanpoko enpresak erakartzea, identifikatutako arazoekin/beharrekin lotutako aukerak garatzeko.

Hauexek izango dira ekintzak:

- ❖ Eskualdeko berariazko sarea finkatzea, erakunde publiko zein pribatuek osatuko dutena.
- ❖ Enpresa-erloko berariazko erronkak eta horiek garatzeko eredua identifikatzea (Market Place).
- ❖ Ekimena dinamizatzea eta enpresak erakartzea (Basque Precision Technology Distric ekimenarekin lotuta).
- ❖ Lankidetzaren bitartez zerbitzu bereizgarriak eskaintzea, enpresa-ekimen berriak garatzea lortzeko.

c) Gizarteratzeko eta Laneratzeko enpresak sustatzea. Lanerain gizarteratze- eta laneratze-enpresari kudeaketan laguntzea

2019an, industriaren sektorean gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak sortzeko bidea eman dezaketen negozio-aukerak identifikatzeko lan handia egin dugu, eta sakon aztertu ditugu horietako batzuk, negozio-ikuspegi batetik.

2020an, aztertu ditugun ideia horietako batzuk martxan jartzeko aukera aztertuko dugu, eta azterketa-lanarekin jarraituko dugu.

III. Industria-sektorean ekonomia zirkularra garatzearen aldeko apustua

2019an, eskualdeko Ekonomia Zirkularreko Agenda definitzeko prozesuari ekin diogu, alor horretan proiektuak identifikatzeko metodologia bat garatuz (2. FASEA). Enpresak izango dira intereseko lineak identifikatzeko iturri nagusia, eta proiektuak garatzeko gure laguntza eskainiko dugu.

2020an, zabaldu egingo dugu *focus group* taldea, eta Agenda horren orientazioa eta edukiak itxiko ditugu.

Prozesu horretan, helburu nagusia da lankidetzaren formularen arabera garatuko diren eta Debabarrena enpresa garbiko eta ingurumenarekiko errespetuzko enpresa-eredu baterantz bideratuko duten enpresa-ideiak identifikatzea.

3. Helburua. Eskualdeko enpresen, ikastetxeen eta zentro teknologikoen arteko lankidetzaren sustatzea

Helburu horren barruan, honako alderdi hauek landuko dira:

I. Enpresen arteko sinergien identifikazioan oinarritutako lankidetzaren eredua sortzea.

- ❖ BPTD enpresa-elkartea. Elkarte hori sortu zenetik (2019ko maiatza), Debegesak hartu du bere gain elkartearen idazkaritza teknikoa, eta Batzordeko kide iraunkorra da gainera.
- ❖ Industria-guneen kudeaketaren hobekuntzan oinarritutako lankidetzaren sustatzea. 2019an, Eibarko Udalak eskatuta, enpresen kokapenean oinarritutako lankidetzaren sustatzeko bi ekimen jarri dira martxan. Ekimen horiek izan duten arrakasta ikusita, gure esperientzia partekatu nahi dugu, eta dagozkien udalen adostasunarekin, eredu hori beste udalerrira batzuetara hedatu nahi dugu.
- ❖ Unibertsitatea enpresara hurbiltzeko eta bi unibertsitate-egoitzak indartzeko ekintzak. 2020an, modu aktiboan parte hartuko dugu industria-erloko enpresa txiki eta ertainen (10-249 langile) eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaren handitzea helburu duen ikerkuntza batean.

1.3. DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERABERDINTASUNA SUSTATZEA

Langabeziari dagokionez, nabarmendu behar da eskualdeak, ekonomiaren susperraldiaren eraginez langabezia-tasa jaitsi den arren, hainbat disfuntzio ditu, hala nola gizon eta emakumeen arteko arrakala (5 ehuneko baino handiagoa), langabeen erdia inguru 45 urtetik gorakoa izatea, langabezia-tasa handiena derrigorrezkoek haragoko ikasketarik ez dutenen artean ematea, edo batez ere zerbitzuen sektorean enplegua eskatzen duten pertsonen eragitea.

Gainera, etorkinen artean ematen dira langabezia-tasa, pobrezia errealeko, mantenu-pobreziako, laneratzeko arazo bereziko eta familia-errenta maila txikieneko tasak.

Horri gehitzen baldin badiogu gaitasun, prestakuntza eta espezializazio maila handiko eremua dela, horrek zaildu egiten du lan-munduratzeari gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen artean.

Alor horretan, Debegesaren misioa edo egitekoa da eskualdean enplegu-politika aktiboak indartzea eta bultzatzea:

- ❖ Gainerako eragile guztiekin batera, hausnarketa bultzatuz eta eskualdeko enplegu-estrategiak definituz, horiek eskualdearen helburu estrategikoekin lerrokatuta.
- ❖ Alor horretan lan egiten duten eragile eta erakunde guztiekin kolaboratuta, guztien esfortzuak koordinatuz eta eskualderako baliabideak erakarriz eta sortuz.
- ❖ Enplegarritasuna hobetzeko proiektu zehatzak bultzatuz.
- ❖ Egoeraren analisiak eginez.
- ❖ Eskualdeko talentua sortu eta bertan gera dadin sustatuz.

Horregatik, estrategiak elkarlanean prestatzeko eta hedatzeko beharra planteatzen da, gizarteratzearen eta laneratzearen alorretan dauden erroka edo behar batzuei aurre egiteko.

2020rako, honako helburuak planteatzen dira:

1. Helburua. Lan-merkatutik urrutien dauden edo prekaritatean harrapatuta dauden langabeen laneratzeari eta gizarteratzearen erraztuko duten ekintzak bultzatzea.

Zehazki:

- ❖ Debabarreneko gizarteratze- eta laneratzeari sarea kudeatzen eta dinamizatzen jarraitzea
- ❖ Prestakuntza-maila txikiko, lan-merkatutik urrun eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboentzako enplegu-ibilbideak diseinatzea, emakumei arreta berezia eskainiz.

2. Helburua. Talentua eta ekintzaitza sustatzea.

Talentua sortzeari eta erakartzeari dagokionez, helburua da Debabarreneko industriaren errealitatea gazteei hurbiltzea, eta ezagut ditzatela enpresek dituzten beharrak eta eskaintzen dituzten etorkizuneko proiektuak.

Gainera, emakumeak sektore horrekin lotutako lanetan sar dadin ere bultzatu nahi da.

Honako hauek izango dira, hain zuzen ere, helburuak:

- ❖ Eskualderako interesekoak diren alorretan goi-mailako prestakuntza duten pertsonak sortzea, erakartzea, berreskuratzea eta bertan geratzea.
- ❖ Gazteen eta haurren artean STEAM bokazioak sustatzea, neskatoak eta sozialki zaugarrienak diren pertsonak lehenetsiz.
- ❖ Prestakuntza profesionalik ez duten pertsonentzako trebakuntza-ibilbideak bultzatzea.
- ❖ Gazteak industriara hurbiltzea.
- ❖ Prestakuntza duten langabe gazteei laguntasuna eta orientazioa ematea.

1.3.1. ENPLEGU-PROGRAMAK ETA -IBILBIDEAK

Enplegu Zerbitzua

DEBEGESAK zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die enplegua aurkitzeko edo hobetzeko laguntasuna eskatzen duten pertsonari, zein beren lantokietan lan egiteko pertsona bila ari diren enpresei; horretarako, zerbitzu hauek ditu:

- ❖ Lanbideren Zentro Kolaboratzaile gisa ematen duen orientazioa, Debegesan dagoen kanpoko erakunde batekin lankidetzan.
- ❖ Enplegu-zentroa, Debegesan dagoen kanpoko erakunde batekin lankidetzan
- ❖ Lan-bitartekaritza / Enplegua. LANBIDEREen zentro kolaboratzailea, eta Baimendutako Enplegu-agentzia.

Debabarreko gizarteratze- eta laneratze-sarearen kudeaketa eta dinamizazioa

2020rako helburuak:

- ❖ Kudeatzea, koordinatzea eta dinamizatzea: urtean bi batzar eta Batzorde Iraunkorren lau bilera egitea.
- ❖ Eragileen artean eskaintzan eta eskariak bideratzea.
- ❖ Proiektu jakin baten edo biren eta proiektuon garapenaren inguruko bi lan-talde dinamizatzea eta kudeatzea.
- ❖ Webgunea kudeatzea: eragile guztien artean partekatzea baliabideei, ekimenei, prestakuntzari eta beste hainbat alderdiri buruzko informazioa.
- ❖ Sarearen eta egindako lanaren ebaluazioa egitea.

Prestakuntza-maila txikiko, lan-merkatutik urrun eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboentzako enplegu-proiektuak eta -ibilbideak.

1. Laneratzeko enpresak

Arlo hauek landuko dira:

I. Debabarrenean laneratzeko enpresa berriak sor daitezen laguntzea

Helburua da laneratzeko enpresen bitartez estal litezkeen prozesuen eta/edo zerbitzuen azpikontratazioaren arloan dauden beharrak identifikatzea, batez ere industriaren sektorean, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden, edo lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei kalitatezko enplegurako aukerak emateko, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide baten esparruan.

Gainera, gutxienez enpresa-proiektu baten merkatu- eta bideragarritasun-azterlana egingo da.

II. Lanerain enpresari laguntzea: kudeatzaileei merkataritza-arloan, erakundeekiko harremanetan eta pertsonen alorrean laguntzea.

2. Debegesa langile langabeentzako prestakuntza-zentro gisa homologatzea

Beharrezko urratsak emango dira, Lanbidek Debegesa funtsezko eta zeharkako gaitasunak eskaintzera bideratutako prestakuntzetan homologa dezan.

3. Gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsona helduentzako hasierako lanbide heziketako espazioa

Eibarko Udalak eta Debegesak Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea dagoen Azitaingo eraikinaren lagapen partekaturako sinatu duten hitzarmenari esker, eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeek eskaintzen ez dituzten espezialitateetan pertsona horiek dituzten beharrei erantzungo dieten Lanbide-gaitasunaren Ziurtagiriak eskuratzeko hainbat ikastaro sustatuko dira, batez ere zerbitzuaren alorrekoak: eraikuntza eta mantenua, ostalaritza, jatetxeak...

4. 45 urtetik gorako langabeei laguntasuna eta orientazioa emateko proiektuak. 45+ esperientzia

Helburu orokorra da, banan-banako eta taldeko prozesu baten bitartez, 45 urtetik gorako pertsonen enplegarritasuna hobetzea, eta enplegua bilatzeko prozesuan gidatzea eta laguntzea.

15 laguneko talde bat

5. Jabetzeko eta enplegurako bidean laguntzeko programa, bazterkeria- edo arrisku-egoeran dauden emakumeentzako.

Kontua da haien enplegarritasuna hobetzeko ibilbide bat garatzea, jabetzean eta gizarteratzean oinarritutakoa.

10-15 bat emakume langabez osatutako talde bat edo bi, gehienak Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak.

6. Proiektu bereziak

Debabarreneko Gizarteratze-sareko eragileekin lankidetzan, gutxienez bi ibilbide martxan jartzea, Sukaldaritzaren, Gozogintzaren eta Okintzaren alorreko prestakuntza eta lanbide-gaitasunaren ziurtagiriak barne hartuko dituztenak.

1.3.2. TALENTUA ETA EKINTZAILITZA SUSTATZEA

Ekintza horrek lortu nahi duena da eskualderako interesekoak diren alorretan (robotika, automatika, elektromugikortasuna, eransketa bidezko fabrikazioa, ziber-segurtasuna...) goi-mailako prestakuntza duten pertsonak sortzea, erakartzea, berreskuratzea eta bertan geratzea. Debarreanean giza kapitala sustatzeko eta mesedetzeko, eta kapital hori eskualdeko ekonomia-sarearekin konektatzeko proiektua da.

Batez ere prestakuntza teknikoko profilen presazko beharrari erantzuten dio. Une hauetan, badakigu enpresek, askotan, zailtasun handiak izaten dituztela beren erakundeetan lanean hasteko era horretako profilak dituzten pertsonak aurkitzeko; horregatik, uste dugu ondoren adierazten den moduan jardun behar dugula:

- a) Epe laburrean eta ertainean: Talentua bertan geratzea eta erakartzea lortuz: *BPTD Talent*
- b) Epe luzean: STEAM bokazioak sustatuz, batez ere bokazio teknikoak-teknologikoak: *BPTD MAKERS*

BPTD Talent

BPTDren orrialdean kokatutako web-espazio bat sortzea eta kudeatzea, zera izango dena:

- ❖ Profil teknikoko enplegua eskatzen duten pertsonen eta eskualdeko enpresen arteko bitartekaritza tresna, BPTD Lan plataformaren esparruan
 - Aipatutako profilak dituzten Debarreaneko edo inguruko pertsonak, edo beren bizitza profesionala garatzeko kanpora joan behar izan duten pertsonak identifikatzea.
 - Enpresen azterketa, aipatutako profilentzako erakargarriak izan daitezkeen lan-eskaintzak identifikatzeko. Horretarako, era horretako eskaintzen identifikaziorako berariazko azterketa zehatua egingo dugu, eta enpresekin kontrastatuko dugu ekimen hori martxan jartzeko asmoa.
- ❖ Eskualdean doikuntza-teknologietan dagoen prestakuntza-eskaintza jasoko duen espazio bat sortzea.
- ❖ Intereseko beste informazio batzuk
- ❖ Komunikazio- eta zabalkunde-kanpaina

BPTD makers

Ekimen honekin, Debarreaneko gazteen artean bokazio teknikoak (STEAM) eta ekintzailtzaren balioa sustatu nahi ditugu, behar bezala prestatuta eta alor horretan eguneratuta dauden pertsonak eduki ahal izateko, eta etorkizunean industria-eskualde bat izaten jarraitu ahal izateko. Bereziki kontuan izango dira neskak eta bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden haurrak, STEAM prestakuntzek "gizarte-igogailu" fenomenoaren sortzen baitute.

Ekintzak:

- STEAM DEBABARRENA SAREA dinamizatzea:
 - ❖ Udalak: koordinaziorako batzarrak, udal teknikariek
 - ❖ Ikastetxeak
 - ❖ Lanbide Heziketako ikastetxeak eta Unibertsitatea
 - ❖ Enpresak:
 - ❖ STEAM DEBABARRENA Emakumeen Taldea
 - ❖ Familiak
- Jarduteko plana:
 - “BPTD MAKERS (STEAM) ASTEA” eskualde mailako ekimen berri bat definitzea eta maiatz inguruan martxan jartzea, Robotika txapelketa eta beste ekitaldi batzuk barne hartuko dituena.
 - Bigarren hezkuntzako ikasleen bisitak enpresetara, zentro teknologikoetara...
 - STEAM bokazioak sustatzeko esperientziak partekatzea, eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan.
 - Ikastetxeek alor horretan dituzten baliabideen eta jarduketan mapa bat egitea.
 - BPTD elkartearekin lotutakoak: ikastetxeetako ikasleek bisitak egin ahal izateko haien instalazioak eta baliabideak utzita, kolaboratzeko prest dauden enpresen zerrenda bat edukitzea

Helburu honekin lotutako jarduteko bi ildoak –BPTD Talent eta BPTD Makers– batera garatzen eta kudeatzen dira 2. Ildo Estrategikoan: “DEBABARRENA BERRINDUSTRIALIZATZEKO EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA JASANGARRIA SUSTATZEA, INDUSTRIA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA.

HAZILAN, prestatutako gazte langabeei zuzendutako proiektua

HAZILAN proiektua langabeen dauden eta, kasurik gehienetan, lan-munduaren errealitatearekin kontaktu eskasa duten 22 eta 44 urte bitarteko prestatutako (unibertsitateko goi-mailako ikasketak, edo lanbide heziketa) gazteei zuzendutako ekintzen ibilbide oso bat da. HAZILAN proiektuaren funtsezko elementu bat da enpresen benetako aukerak eta pertsonen gaitasun-profilak identifikatzean oinarritzen dela, laneratzeko benetako aukeren gainean lan egiteko helburuz, enpresetako praktikekin batera.

2020: Gutxienez bi edizio garatzea.

1.3.3. BIZTANLERIA ETA, BATEZ ERE, EKINTZAILEAK EKONOMIA BERRIEI BURUZ SENTSIBILIZATZEA

Ekonomia Berriak korrante ekonomiko ezberdinen katalizatzaile gisa, hala nola ekonomia zirkularra, guztion onerako ekonomia, kolaboratiboa, gizarte-ekonomia, solidarioa, blue, finantza etikoak... elkartzen gaituena bilatzeko eta, elkarrekin, pertsonen eta planetaren zerbitzura egongo den eredu ekonomiko baten alde lan egiteko helburuz.

- ❖ NESI EUSKADI HUB taldean parte hartzen jarraitzea.
- ❖ Ekonomia Berriei buruz sentsibilizatzeko, informatzeko eta trebatzeko ekimenak garatzea.

1.4. HIRI-BERRONERATZE JASANGARRI ETA INTEGRATU BATERANTZ: ESKUALDEKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO DEGRADATUEN BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Debegesa Debabarrena Berroneratzeko Hirigintzako Sozietate gisa eratu zen 1998ko maiatzaren 13an, Debabarrena eskualdeko Birgaitze Integratuko Eremuetan (Hirigune Historikoak eta Degradatutako Eremuak) zein gainerako hiri- eta landa-eremuetan ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzea sustatzeko eta bultzatzeko eta, ondorioz, eskualdeko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko.

2015eko abenduan, Debabarreneko Hiri-garapen Jasangarri Integralerako Estrategia –EDUSI DEBABARRENA 2020- onartu zen. Debabarreneko Jasangarritasunerako Ekintza Planean (2012-2020) oinarritzen da estrategia hori, eta plan horrekin lerrokatzen da, bai eta hura berrikusi eta definitzen duen 2018-2022 aldirako Ekintza Planarekin ere.

Ildo estrategiko horrek, besteak beste, Debegesaren esparruan –**Debabarrena Berroneratzeko Hirigintzako Sozietate gisa**– kokatzen diren proiektuak hartzen ditu barne, baita **EDUSI Debabarrena** estrategiapean daudenak ere.

Estrategia horiei jarraiki, **Debabarrena Hirigintzari eta Ekonomiari dagokionez Berroneratzeko Plana** prestatzen hasi gara 2019an, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Agiri honetan planteatzen da 2020an amaitzea plana, inplikaturako erakunde guztiekin lankidetzan, eta plan horretan planteatzen diren ekintzak martxan jartzean.

1.4.1. HIRI-EREMUEN KALITATEA HOBETZEA, ETA HORIEN DINAMISMOA INDARTZEA

Arlo hauetan lan egingo da:

I. Debabarreneko auzorik kaltetuenak birgaitzea bultzatzea

Txonta auzoaren (Eibar) birgaitze integrala

HIROSS4ALL proiektua. (Horizon 2020)- Txonta OPENGELA



Funded by
the European Union

2019an abiarazi da HIROSS4all- Home Integrated Renovation One-Stop-Shop for Vulnerable Districts-Opengela deritzon europar proiektua; Debegesak proiektu horretan parte hartzen du, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze sailak zuzentzen duen partzuergo batekin batera, eta Energiaren Euskal Erakundearen, GNEren, Bilboko Udal Etxebizitzen, Fedarene eta Housing-EUren partaidetzarekin, besteak beste. Proiektuaren helburu nagusia da auzoko bulego-eredu berritzailea garatzea, monitorizatu eta bi auzo pilotutan baliozkotuko dena, Txontan (Eibar) eta Otxarkoagan (Bilbo).

Opengela proiektuaren helburu nagusia da –hiru urteko iraupena izango du– ekonomiko bideragarria den eta etxebizitza-erakinetarako errepikagarria den etxebizitzak birgaitzeko zerbitzu integratua garatzea, jabeei eta jabekideen erkidegoei birgaitze-prozesu osoan laguntzeko auzoko bulegoak ezarriz, leihatila bakar gisa.

Debegesak Txonta auzoko bulegoaren jarduera indartzea planteatzen du, estrategia globalaren barruan eta beste erakunde batzuekin koordinatuta, Txonta auzoa birgaitzea eta berroneratzea lortzeko; bulego horrek jabeei eta jabekideen erkidegoei beren etxebizitza-erakinak birgaitzeko prozesu osoan laguntzeko leihatila bakar modura funtzionatuko du, Opengela proiektuak definitutako dagozkion eginkizunei jarraiki.

II. Industria-eremuak berroneratzeko politikak bultzatzea eta garatzea, jarduera ekonomikoa sendotzeko, sortzeko eta erakartzeko helburuz

Helburua da azpiegiturei (lurzorua eta pabilioiak) balioa ematea, jarduera ekonomikoa sendotzeko, sortzeko eta erakartzeko. Besteak beste, ondorengo jarduketa-ildoak planteatzen dira:

1. Industria-guneak eta jarduera ekonomikoko eremuak kudeatzea eta berroneratzea.
2. Erabilgarri dagoen lurzorua garatzea eta hutsik dauden pabilioiak okupatzea.
3. Gaitasun handiko hedapena (telekomunikazioa) industria-guneetan.

2020. urtean, jarduketa-ildo horiek bultzatzen jarraituko dugu, bai eta kudeaketa eta berroneratzea hobetzeko dagoeneko abian dauden jarduketekin ere, industria-gune eta jarduera ekonomikoko eremu hauetan:

❖ Azitain-Erisondoko (Eibar) jarduera ekonomikoko eremua

Eremu horien kudeaketa hobetzeko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzatzeko egindako lanaren ondoren –2018ko laugarren hiruhilekoan hasita–, lan horrekin jarraitzea planteatzen da, parte hartzen duten enpresek definitu dituzten lehentasunezko jarduketa-eremuen arabera; jarraian adierazten dira jarduketok:

- 1. Bide-segurtasuna hobetzea
 - 2. Informatikako hondakinen, hondakin geldoen eta etxeko hondakinen kudeaketa hobetzea
 - 3. Mantenua eta irudia hobetzea
 - 4. Garraio publikoa hobetzea
 - 5. Ekonomia zirkularraren alorrean proiektuak garatzea
- ❖ **Matsariako (Eibar) industria-gunea**

Eremu horren kudeaketa hobetzeko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzatzeko egindako lanaren ondoren –2019ko laugarren hiruhilekoan hasita–, lan horrekin jarraitzea planteatzen da, parte hartzen duten enpresek definitu dituzten lehentasunezko jarduketaren arabera; jarraian adierazten dira jarduketok:

- 1. Oinezkoen industria-gunerako sarbidea hobetzea
- 2. Informatikako hondakinen, hondakin geldoen eta etxeko hondakinen kudeaketa hobetzea
- 3. Garbiketa, mantenua eta irudia hobetzea
- 4. Energia sortzeko proiektuak bultzatzea
- 5. Abiadura-seinaleztapena eta -kontrola hobetzea
- 5. Banda zabaleko (zuntz optikoa) azpiegitura hobetzea

❖ **Itziarko (Deba) enpresa-parkea**

Itziarko industria-gunearen Kontserbaziorako Erakunde Urbanistikoarekin egindako lanaren ondoren –tokiko erakunde ezberdinen eta erakunde horren arteko partekatutako ibilbide-orri bat definitu da–, 2020. urtean arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari jarraitutasuna ematea planteatzen da, lehentasunen arabera martxan jarri ibilbide-orri hori.

III. Soraluzeko hiri-eraberritze jasangarri eta integratuari laguntza berezia ematea.

Helburua da Soraluzeko hiri-garapen jasangarri eta integratua modu berezian babestea.

Helburu hori betetzeko, 2020. urtean Soraluzeko Udalarekin lankidetzan jarraitzea planteatzen da.

2019. urtean, Soraluzeko Udalarekin lankidetzan, Soraluzen hiri-eraberritzea eta eraberritze ekonomikoa garatzeko interesa duen herritar talde batekiko harremana abiarazi da eta, 2020an, lankidetzak horrekin jarraitzea planteatzen da.

1.4.2. ERAIKITAKO ONDAREAREN BIRGAITZE JASANGARRIA BULTZATZEA

I. Etxebizitza birgaitzeko zerbitzua

Helburua da partikular eta jabekideen erkidegori orori ematea haien etxebizitzak eta/edo etxebizitza-erakinak birgaitzearen abantailen zein birgaitzearen alorrean dauden laguntza ekonomiko guztien berri Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila (ETXEBIDE), Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, etab.

Zerbitzu honek dauden laguntza ekonomikoei buruzko informazioa ematen du (leihatila bakarra) eta, hala eskatuz gero, etxebizitzak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren (Etxebide) laguntzen espedientea tramitatzen du.

Gainera, birgaitze-obra jasangarriagoak bultzatzen ditu eta horren inguruan sentsibilizatzeko lana egiten du, egin beharreko obraren arabera "Birgaitze-lan Jasangarriko Fitxak" emanaz, birgaitze-lanak jasangarriagoak izan daitezen beharrezko neurriak hartzeko helburuz.

II. Erabilerarik ez duten industria-eraikinak eta -lurzoruak erabiltzea

Azpiegiturei (lurzorua eta pabilioiak) balioa emateko helburuz, jarduera ekonomikoa sendotu, sortu eta erakarri dadin, 2020an, erabilerarik ez duten jarduera ekonomikoko eraikin eta lurzoruetan jarduera ekonomikorako espazio berriak sortzea bultzatzen jarraituko dugu, tokiko eragile eta erakundeekin lankidetzan.

1.4.3. LURRALDE-OREKA: ESKUALDE-MAILAN KOORDINAZIO HOBE BATI ETEKINA ATERA DIEZAIOKETEN LURRALDE-PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA JARDUKETEN GARAPENA BULTZATZEA

Hauek izango dira lan-ekintzak:

- I. Metropoli-antolaketako neurriak eta hiru euskal hiriburuekiko posizionamendu estrategikoko neurriak bultzatzea**
- II. Deba ibaia eskualdearen ardatz gisa berreskuratzea eta sartzea**
- III. 3. ildo. Hiriak berroneratzeko udalez gairaineko jarduketak sustatzea**

2019an, Debabarreneko Hiriak Berroneratzeko eta eskualdearen posizionamendu estrategikorako Plana prestatzen hasi gara, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Agiri honetan planteatzen da 2020an amaitzea plana, inplikaturako erakunde guztiekin lankidetzan, eta plan horretan planteatzen diren ekintzak martxan jartzean.

Esparru horren barruan, eta ibaia eskualdearen ardatz gisa berreskuratzekeko strategiapean, **udalez gairaineko intereskoak eta posizionamendu estrategikoa** helburu duten ondorengo ekintzak planteatzen dira 2020. urterako:

- ❖ Deba eta Ego ibaien saneamendu integrala bultzatzea eta horren jarraipena egitea, Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lankidetzan.
- ❖ Ego ibaiaren Eibar eta Ermuaren (Zaldibar) arteko ibai-espazioa berroneratzeko eta ingurumena hobetzeko proiektua bultzatzea eta horren jarraipena egitea, aurreproiektuaren eta aldaketen arabera, Zaldibarko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean sartu ondoren (behin betiko onespina).
- ❖ Deba ibaiaren Estuarioaren Plan Bereziaren Aurrerapena (Deba eta Mutriku) idatzi ondoren, 2020. urtean, eremu horren abiarazitako prozesua bultzatzeko beharrezko ekintzekin jarraituko dugu.
- ❖ 2020. urtean zehar, Deba ibaiaren eta Sasiolatik (Deba) eta Astigarribiatik (Mutriku) estuariorainoko (Deban eta Mutriku) erriberaren Paisaiaren Ekintza Planean planteaturako jarduketak bultzatzea planteatzen da.

1.5. DEBABARRENA PRODUKTU ANITZEKO ETA URTAROS KANPOKO HELMUGA TURISTIKO LEHIAKOR GISA INDARTZEA, ARLO PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA NAGUSI IZANDA

2016an onetsi zen Debarreneko Turismoaren Plan Estrategikoa, eta 2020ra arte garatu diren Turismo arloko proiektu eta jarduketak gehienak jasotzen ditu. 2020ra artekoa da Plan Estrategikoaren indarraldia eta, beraz, Plan Estrategiko berria idatziko da urte horretan.

Plana berrikustearekin batera, kalitatezko turismo baten aldeko apustua oinarritzat duten jarduketak egikaritzen jarraituko dugu 2020an, non helmuga turistikoak eta hari lotutako turismo-azpiegiturak funtsezko eginkizuna duten. Horregatik, bi alor horietan ardaztuko dira 2020ko lan-ildo nagusiak.

1.5.1. DEBABARRENEKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN BERRIKUSPENA

Especializatutako aholkularitza-enpresa batek berrikusiko du Debarrena Turismoa atalaren Plan Estrategikoa. Debegesaren turismoko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eredu eta dauden sektoreko mahaietan oinarrituko da Plana prestatzeko prozesua. Plan horren esparruan, bi denbora-aldi planteatuko dira, bata estrategikoagoa (5 urtetik gora), eta bestea operatiboagoa. Agiria 2020ko lehen hiruhilekorako onesteko prest egotea lortu nahi dugu.

1.5.2. EZAGUPENEAN ETA ARLO PUBLIKOA-PRIBATUA AURRERAPENEAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA TURISTIKOA BULTZATZEA, ELKARLANERAKO FORMULAK EZARRIZ

Planaren Gobernantza-programa

Sektore publikoko eta pribatuko eragileen arteko lankidetzaren eta enpresen arteko sustatzea izango da eskualdearen erronka turistiko nagusienetakoa. Horretarako, Euskal Turismoaren Kudeaketa-eredua sustatzen du BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentziak; Turismo-lankidetzako Entitateen (DEBEGESA) bitartez ezartzen da eredu hori lurraldean, eskualde mailan.

2020. urtean mahai horien funtzionamenduari jarraitzea nahi da (Eragile Publikoen mahaiak, azpisektoreen mahaiak –gastronomia, etab.–, eta Turismoko Mahaiak). Urte honetan, mahai horietarako planteatu ohi diren batzar operatiboekin, Debarreneko turismoko Plan Estrategikoaren hausnarketa-prozesua egingo da.

Euskal Kostaldeko Geoparkearen Zuzendaritza Batzordean parte hartzea

Debegesak, GEOGARAPEN Euskal Kostaldeko Geoparkea kudeatzeko elkarte osatu duten 3 udalek, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute Geoparkearen Zuzendaritza Batzordea. 2020. urtean, Debak eta Mutrikuk Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan duten posizionamendua hobetzeko eginkizunean laguntzen jarraituko dugu.

Gipuzkoako Turismoko Mahaian parte hartzea

Gipuzkoako 9 eskualdeetako eta Donostiako kudeaketako teknikarien partaidetzarekin osatzen da Gipuzkoako Turismo Mahaia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo departamentuak babestuta eta koordinatuta. Aldizka (urtean lauzpabost aldiz) elkartzen da lan-mahai hori, eta bere helburua da interes orokorreko jarduketak zehaztea, baterako promozioak burutzea, Gipuzkoako Turismoko Plan Estrategikoa egitea, Gipuzkoan Turismo arloko laguntzak eta diru-laguntzak banatzeko irizpideak eztabaidatzea eta irizpenak ematea, etab. Debegesak mahai horretan parte hartzen eta Debabarrena helmuga turistikoaren behar, kezka eta proposamen guztiak mahai horretara eramaten jarraituko du.

Euskal Kostaldeko Eragile Publikoen Mahaian parte hartzea.

Hainbat lan-mahaitan antolatzen da BASQUETOUR agentziak zuzentzen duen Euskal Kostaldea proiektuaren kudeaketa. Eragile publikoen mahaian Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko eskualdetako teknikariak eta kudeatzaileak elkartzen gara, urtean hiru aldiz. Kasu honetan ere, baterako proiektuak jorratzea da helburua. Debegesak lan-mahai horretan parte hartzen eta ekarpenak egiten jarraituko du.

Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako beste Foro edo Lan-mahai batzuetan parte hartzea

Azkeneko urteotan hainbat motatako programa eta produktu-klubetan parte hartzen ari gara (familia, gastronomia, industria-turismoa, etab.); horien barruan sortutako mahaien deialdietan parte hartzen dugu.

Gipuzkoako MICE batzordean parte hartzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako foroa da, eta turismo-lankidetzako entitateen ordezkari hartzen du parte DEBEGESAK.

Laguntzak eta diru-laguntzak

Turismo Departamentuaren berriazko laguntzez gain, Turismo sailak detektatutako beharren eta aukeren arabera ematen diren beste laguntza batzuk ere kudeatzen ditu, edo laguntza horien kudeaketan laguntzen du. (Leader, Arrantzaren ondoriozko produktuak merkaturatzeko laguntza, GFAREN IKTak, etab.).

1.5.3. ESKUALDEKO ESPAZIO TURISTIKOA HOBETZEA ETA ESKUALDEKO BALIABIDEEI BALIOA EMATEA, JASANGARRITASUNA ETA KALITATEA KONTUAN HARTUTA

Eskualdeko helmugako informazio- eta harrera-sistemaren hobekuntza

laz egin bezala, Eibarren turismo-bulegoa sortzea bultzatuko dugu, bai eta Debabarrena eskualdeko barneko udalerrietan produktuak eta zerbitzuak sortzea ere.

1.5.4. BALIABIDEAK HOBETZEA, ETA TURISMO-PRODUKTU ESKAINTZA GARATZEA

Produktu anitzeko helmuga da Debabarrena; horregatik, beharrezkoa da, segmentu eta merkatu ezberdinei zuzendutako eskaintza lehiakor baten bitartez, eskariari bideratutako produktu-sorta bat osatzeko lan egitea.

Natura-turismoa: ekoturismoa eta turismo aktiboa

I. Geoparkearen Interpretazio Planean identifikatutako bi poloak garatzen laguntzea

Mutriku eta Euskaldunen Itsasoa. Mutrikuko Udalak egindako kudeaketari esker, Arrietakua Jauregia ireki ahal izan da eta, orain, turismoaren arloan datozen urteetarako Mutrikuk duen erronka izango da dauden baliabideen egitekoa antolatzea eta definitzea, eta baliabide horiek elkarrekin harremanetan jartzea. Testuinguru horretan, nabarmentzekoak dira kofradia zaharraren (portuak), Bentalekuaren eta Arkugainen egoera, eta Nautilusen eta Komentuaren etorkizuneko bideragarritasuna. Era berean, Mutrikuko erdigunean dagoen turismo-ostatuaren azpiegitura eskasia eta portuari balioa emateko erronkak nabarmentzen dira, besteak beste.

2020an, berdelaren eguna ospatzeko beharrezko laguntza eskatuko da, eta laguntza eskatzeko eta ondoren laguntza hori justifikatzeko beharrezko eginkizunak egingo dira.

Karsta eta Gizakia proiektua. Euskal Kostaldeko Unesco Geoparkearekin eta Debako Udalarekin batera egindako hausnarketa-prozesuaren ondorioz, Karsta eta Gizakia egitasmoaren diskurtsoa gauzatu duten produktuak definitzen laguntzea planteatzen du Debegesak. Halaber, udalerriko herri-gunean ostatu-eskaintza sustatzen laguntzea planteatzen da.

II. Dolmenen Ibilbidearen Proiektua sendotzea.

2020. urtean, Soraluze proiektuaren titular izatera (alde ekonomikoa) pasatuko den lankidetzaren hitzarmenaren barruan, Debegesak egingo ditu Bergara, Elgoibar eta Soraluzeko Udalek onetsitako lan-planean ekintzak abian jartzea ahalbidetuko duten gestioak, indusketa-lanekin, bisita gidatuen programarekin, seinaleztapenaren bigarren fasearekin... jarraituz.

Proiektua behar bezala garatzen dela bermatzeko helburuz, lanean jarraituko du Jarraipen Batzordeak ere, eta batzorde horretan adostuko dira proiektuari dagozkion erabakiak; udal bakoitzeko ordezkari batek, Debegesako ordezkari batek eta Debemeneko beste batek osatuko dute Jarraipen Batzordea.

Kultura-turismoa

I. Eskualdeko Industria-turismoko eskaintza bultzatzea

Basquetour agentziak, 2018an, EAEko Industria-ondarearen Estrategikoa definitzeko lan-ildoan abiarazi izanari esker, eta Eibarko Udalak eskatuta, Eibarren industria-ondarearen turismo-produktu bat antolatzeko lehen urratsak egin dira. Iaz bezala, 2020an ere, Ekonomia Garapenerako Departamentuarekin, Kultura Departamentuarekin eta Egoibarrarekin lankidetzan, Eibarko Industria-ondarearen turismoari balioa emateko lanekin jarraituko dugu. Helburua da udalerraren industria-ondarearekin lotuta dagoen Eibarko Armagintzaren Museoaren posizionamendu turistikoa indartzea. Halaber, Elgoibarko Makina Erremintaren Museoan ere kolaboratuko dugu.

Eskudun erakundearen inplikazioaren eta finantzazio-aukeren arabera jarriko dira abian jarduketak horiek

II. Turismo Gastronomikoa

Debabarreneko Klub Gastronomikoaren barruan, prestakuntzako eta sentsibilizazioko ekintzak egingo dira eta, batez ere, Klubeko kide izateagatik eskatzen zaizkien ebaluaziorako ekintzak. 2020rako, Klub Gastronomikoa dinamizatzeko ekintzak (Produktu Klubaren batzarrak), klubaren jarraipen-bisitak, Tripontziak lehiaketaren VII. Edizioa bultzatzeko ekintzak, promozio-euskarrietan kolaboratzea, ekoizle eta aliatuekin kolaboratzea, agenda gastronomikoa eta beste hainbat ekintza daude aurreikusita.

2020. urteari begira, helburua da Klubean 24 enpresaren kopurua mantentzea.

MICE turismoa

Debabarrena eskualdeko ostatu-, jatetxe- eta azpiegitura-eskaintzaren inbentarioa egin ondoren (Basquetour agentziaren irizpideen arabera), 2020an garatuko den dinamizazio turistikorako Planaren berrikuspenaren barruan, eskualdean MICE turismoa garatzeko aukera aztertuko da, eta hori garatzeko erabil daitezkeen estrategiak definituko dira.

Eskaintza turistikoa dibertsifikatzea eta hobetzea

Debegesak eskaintza turistikoa hobetzeko eta dibertsifikazioa sustatzeko lanean jarraituko du, batez ere Debabarrena eskualdeko kostaldeko udalerrietako ostatu-zuzkidura hobetzeko.

1.5.5. URTAROKOA IZATEARI AURRE EGITEA ETA BIZTANLERIA TURISMO-JARDUERAREKIN LOTZEA LORTZEA

Marketin eta promozio turistikoko Plana

Debabarreneko Turismoko Plan Estrategikoa berrikustearekin batera, eta eskualdearen erronkak eta produktuak kontuan hartuta, Debabarreneko Marketin eta promozio turistikoko plana prestatuko da. Plan horrek markatuko du 2020az geroztik garatu beharreko marketineko estrategia.

Merkaturatzea promozionatzea eta bultzatzea

Aurten Marketin Turistikoarekin lotutako lanak indartzen jarraituko dugu, eta promozio jarduketak egiten. Oro har, Donostia Eskualdea eta Euskal Kostaldearen eskutik joango dira jarduketok.

Debabarreneko produktuak eta helmuga promozionatzea

2020. urtean, Debabarrena eskualdea helmuga turistikoa gisa eta, bestetik, komunikazioko eta publizitateko espezializatutako materialak eta kanalak behar dituzten berariazko produktuak promozionatzeko jarduketekin jarraituko du Debegesak.

Turismoko azokak

Eskuarki parte hartu ohi dugun turismoko azoketara joango gara, edo Gipuzkoako kostaldeko beste lankide batzuek ordezkatzeko gaituzte, Euskadi markaren edo Gipuzkoaren irudiaren babesean. Hain zuzen ere, azoka hauetara joatea aurreikusten dugu: Fitur, SITC, Sevatur, Expovacaciones, Intur, Toulouse...

Publizitatea

Marketin eta promozio Planaren barruan, Debabarrena helmuga turistikoa gisa promozionatzeko aurreikusitako komunikabideen plana gauzatu da 2020an. Hor sartzen dira komunikabide orokorretako zein espezializatuagoak diren beste batzuetako publizitate-tarteak, kanpainaren xede-taldearen arabera.

Berriazko kanpainak aurreikusten dira, adibidez, Dolmenen Ibilbidearen eta Klub Gastronomikoaren bisita-programetarako publikoa erakartzeko.

Online eta sare sozialetako promozio-ekintzak

2019an jarri da abian webgune berria, eta laguntza modura erabiliko da. Hilero argitaratuko da turismo intereseko gai bat ardatz hartuko duen *newsletter* bat, lau hizkuntzatan. Community Managerraren kanpo-zerbitzuari eutsiko diogu, sare sozialetan eskualdearen eta turismo-proposamen nagusien presentzia izateko.

Gipuzkoako Kostaldearen promozioa

Ohi bezala, baterako promozio-kanpainak egingo dituzte datorren urtean ere Gipuzkoako kostaldeko eskualdeek. Zentzu horretan, Frantziako Sud Ouest aldirian publizitatea sartzeko aurreikusten da. Horrez gain, elkarrekin parte hartuko dugu turismoko hainbat azokatan (Toulouse eta Intur).

Film Commission Gipuzkoa

Film Commission Gipuzkoa batzordearekin kolaboratzen jarraituko dugu, ekoizpenak eta ekitaldiak Debabarrena eskualdera erakartzeko helburuz.

1.5.6. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA, PROFESIONALA ETA BEZEROARI BIDERATUTAKOA GARATZEKO BIDEAN LAGUNTZEA, BIKAINASUNA, BEZEROAREN GOGOBETETASUNA ETA LEIALTASUNA HELBURU

Debabarreneko turismo alorraren kolaboratzaile diren Erakundeek esparruan, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak da Debabarreneko Plan Estrategikoaren lehentasunezko ardatzetako bat. 2016. urteaz geroztik, Debabarrena eskualdeak helmuga turistikoa hobetzen eta eratzen modu aktiboan kolaboratzen duten erakunde multzo bat du. Eskualdeko estatuek, jatetxeek, turismo aktiboko enpresek, ekoizleek eta turismoko baliabideek osatzen dute talde hori.

Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren esparru horretan, erakundeei zuzendutako zerbitzu-katalogo bat dugu 2020. urtean, lan-ildo hori indartzen jarraituko dugu.

Berrikuntza eta kalitatea sustatzera bideratutako ekintzak:

I. Helmugako kalitate turistikoko jardunbide egokien programa (SICTED)

Helburua da establezimenduaren bame-kudeaketa hobetzea, bai eta bezeroarenganako arreta eta haren gogobetetasuna ere; horretarako, Basquetour agentziak bultzatutako lan-metodologian oinarritzen gara. Guztira 25 turismo-enpresak parte hartzea lortu nahi dugu.

Jarduketak:

- ❖ Laguntza tekniko eta pertsonalizatuko bisitak programa horretan parte hartzen ari diren enpresetara.
- ❖ Laguntzarako bisitak kanpoko ebaluazioetan.

II. IKTen jardunbide egokien programa.

Tecnaliarekin lankidetzan, proiektuaren helburua da Debabarreneko turismo-enpresen maila teknologikoaren hobekuntza sustatzea. Debabarreneko 8 turismo-enpresak parte hartzea lortu nahi dugu.

Jarduketak:

- ❖ Diagnostiko pertsonalizatua egitea
- ❖ Urteko hobekuntza-plana definitzea, aurreikusitako helburuak betetzeko

Era berean, eta Basquetour agentziaren eskutik, laguntza emango zaie **IRISGARRITASUNAREN** eta **KODE ETIKOAREN** programetan parte hartzea erabakitzen duten turismo-enpresei.

1.6. ENERGIA-ERAGINKORTASUNEAN ETA TOKIKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAN OINARRITUTAKO ENERGIA-EREDU LEHIAKOR BATERANTZ AURRERA EGITEA

2019an amaitu da Debabarreneko Energia Estrategikoaren berrikuspena, eta EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legea indarrean sartu izanak baldintzatu du berrikuspen horren definizioa.

Lehentasunezko energia-estrategiak egikaritzea bermatzeko helburuz, lan-ildo hau garatzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren lankidetzaren mende egongo da hein handi batean; departamentu horrek, hitzarmen baten bitartez, azterlanak eta Garapen Agentzietan lan-esparru horretan lan egitea babestu du orain arte. Horregatik, behin hitzarmen horren finantzazioko jarraibideak zein diren jakin eta eskualdearen lehentasunak birdefinitzen direnean planteatuko dira Hitzarmenaren barruan garatu beharreko ekimenak: Energiaren mahaian adostuko dira ekimenok, eta Debegesaren Administrazio Kontseiluan onetsiko.

Azkeneko urteetan egin bezala, Debegesak energiaren esparruan lanean jarraituko du, Debabarreneko Energia Estrategia eta 2020an estrategia horretan egin litezkeen aldaketak erreferentziazat hartuta. Helburu nagusia izango da eskualdearen energia-eredu berria diseinatzea, deszentralizazioan, energia berriztagarrien ahalik eta aprobetxamendu handienean eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarrituta egongo dena, garapenaren oinarritzat Debabarreneko energia-jasangarritasunerako Batzordearen **jarduketak** eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzen sarea hartuta. Era berean, Debabarreneko udalei beren energia-estrategiak prestatzen lagunduko zaie

Debabarrenaren energia-jasangarritasunerako batzordea.

Debabarreneko energiaren lan-mahaiaren dinamikarekin jarraitzea; ordezkari politikoek eta/edo udalerako teknikariek osatzen dute mahai hori. 2020. urtean, mahai horren egiteko nagusia izango da Debabarreneko Energiaren Plan Estrategikoan definitutako ekintzen jarraipena egitea.

Energia-politika jasagarrien aldeko aliantzen sarea sustatzea.

Azitaingo Industria-guneko bero-sarearen proiektu pilotua abian jartzeko helburuz, erakunde publiko eta pribatuekin elkarriketa erronda egiten jarraituko da, proiektuaren garapena ahalbideratzeko.

1.7. BESTE PROIEKTU BATZUK

Batzuetan, udalentsako proiektuak egiteko aukerari dagokionez, kontuan hartu behar da, proiektuen zenbatekoaren arabera, horiek gauzatzeko aukerarik dagoen edo ez. Muga horri konponbidea emateko, “Bitarteko Propio Pertsonifikatuaren” figura proposatu zuen Debegesak irtenbide gisa.

Gaur egun, bi udalerrik deklaratu dute Debegesa “Bitarteko Propio Pertsonifikatu”, eta deklarazio hori ebazteko dago gainerako udalerrien kasuan.

Horiek ebazten joan ahala, udalentsako interesekoak diren eta eskualdeko estrategiekin eta lehentasunekin bat datozen proiektuak garatu ahal izango dira.

Atal honetan, agentzia historikoki garatzen ari den ekintza operatiboagoak jasotzen dira:

- ❖ Ingurumen-proiektuetan laguntzea
- ❖ Garapen jasangarriko udalen estrategiak eta proiektuak garatzen laguntzea
- ❖ Agenda 21
- ❖ Hirigintza arloko aholkularitza: 2020an, udalaz gaindiko plangintzari buruzko aholkularitza ematen jarraituko du, udalek hala eskatuz gero.
- ❖ 2020. urtean, diru-laguntzak eskatzen, justifikatzen eta analizatzen lagunduko du, bai eta memoriak eta txosten teknikoak idazten ere, udalek hala eskatuz gero.
- ❖ 2020. Urtean, eskualdeko eta tokiko proiektuak Europako Programetan sartzea bultzatuko du.

1.7.1. DEBABARRENA ESKUALDEKO IKASLEEI ETA IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO JARDUKETAK, KANPAINAK ETA/EDO ZERBITZUAK

Eskolako Agenda 21

2019-2020 ikasturtean, Debegesak zuzendu eta koordinatuko du Eskolako Agenda 21 egitasmoa, Debabarreneko udaletako teknikarien eta politikarien lankidetzeta eta inplikazioarekin. Nabarmenezkoa da diru-laguntza bat eskatu dela proiektua behar bezala garatzeko, baina Kudeaketa Plan hau idazterako ez da oraindik erantzunik jaso; zalantzarik gabe, diru-laguntza hori jasotzeak edo ez jasotzeak baldintzatu egingo du planaren irismena.

Agenda 21 prozesuan parte hartzen duten Debabarreneko ikastetxeek ekoizpen eta kontsumo jasangarriaren gaia jorratuko dute. Honako hauek jarraitzen dute izaten egitasmoaren helburu nagusiak:

- ❖ Debabarreneko (Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Eibar eta Ermua) ikastetxeak eta, zehatzago, ikasleak, beren udalerriko Agenda 21 egitasmoaren garapenean inplikatzea.

- ❖ Ikasleak herritar kritiko eta parte-hartzaile gisa trebatzea, haiei errespetuaren eta lankidetzaren balioak transmitituz.
- ❖ Eskola ingurumenaren eta gizartearen aldeko jardunbide egokien eredu bilakatzea.

Lau fasetan banatzen da proiektua:

1. Prestakuntza eta Informazioa: ikasleei zein irakasleei jorratu beharreko gaiari buruzko informazioa ematea eta trebakuntza sustatzea.
2. Diagnostikoa egitea: aztergaiari dagokionez, udalerrriaren diagnostikoa egingo dute ikastetxeek.
3. Ekintza Plan bat proposatzea: diagnostikoan identifikatutako gizarte- eta ingurumen-arazo batzuk konpondu ahal izateko ekintza plan bat definitzea.
4. Komunikazioa eta koordinazioa: ekintza planean jasotako hobekuntza-ekintzak ezagutaraztea, eta udalen eta ikastetxeen artean udal jarduketak koordinatzea, ikasleen artean parte-hartzearen kultura sortuz.

Ingurugelari dagokio ikastetxearen kudeaketa hobetzera edo aztergaia kurrikulumean sartzera bideratutako ekimenetarako lanean laguntzea. Beraz, ikastetxearen eta udalerrriaren arteko harremanaren esparruari dagozkio Debegesak garatuko dituen ekintza guztiak:

- ❖ Hezkuntza-materiala prestatzea eta diseinatzea; ziklo bakoitzeko bat. Material hori erabiliko da diagnostikoa eta ekintza-proposamenak egiteko oinarritzat. Eusko Jaurlaritzak ematen duen diru-laguntzaren mende egongo da hein batean.
- ❖ Ikastetxeekin egiten diren koordinaziorako batzarrak dinamizatzea
- ❖ Diagnostikoa eta Ekintza Plana egiteko prestakuntza, irakasleei zuzendutakoa: bi prestakuntza-saio antolatzea eta dinamizatzea.
- ❖ Batzar teknikoak, udalek eta ikastetxeek izan ditzaketan zalantzak argitzeko: prozesuan zehar detektatzen diren beharren arabera.
- ❖ Eskola arteko foroak, ikastetxeen beharren arabera; bost gehienez (Eibar, Ermua, Deba, Mutriku eta Elgoibar).
- ❖ Udalbatzarrak: 7 (udalerrri bakoitzeko bat).

Halaber, Eskolako Agenda 21 egitasmoaren ikasturte berriari ekingo zaio 2020ko irailean eta, aurreko ikasturteetan bezala, beharrezkoa izango da gaia eta lan-dinamika definitzea. Erabilgarri dauden baliabideen eta Agenda 21 egitasmoan parte hartzen duten eskualdeko ikastetxeen arabera izango da hori.

2020-2021 Agenda Fisikoa

2020-2021 ikasturterako definitzen den lan-gaia abiapuntutzat hartuta diseinatuko dira agendaren edukiak. Debegesak jarraituko du agenda fisikoaren edukiak lantzen, baldin eta agenda inprimatzearen kostuak erakunde eskatzaileek beren gain hartzen badituzte.

1.7.2. DEBABARRENEKO BIZTANLERIARI ORO HAR BIDERATUTAKO JARDUKETAK, PROIEKTUAK ETA/EDO ZERBITZUAK

Eskualdearen Behatoki Sozioekonomikoa

Helburua: eskualdearen funtsezko adierazleen jarraipena ahalbideratzea, eskualdearen egoeraren benetako diagnostikoak eduki ahal izateko.

Ekintzak: koiuntura-txostenak egitea, sektorekakoak/gaikakoak, udalentsako eta udal departamentuentzako.

Gure Balioak proiektua

2010ean sortu ziren Gure Balioak sariak, eta harrezkero antolatzen eta sustatzen ditu DEBEGESAk. Sari horrek publikoki aintzatetsi nahi ditu Debabarrenaren garapen sozioekonomikoari laguntzen dioten balio sozialen alorrean egiten duten lanagatik nabarmentzen diren pertsonak edo erakundeak. Errespetua, osotasuna, ekintzaitza eta kolaborazioa-lankidetzak dira Debabarreneko berezko ezaugarri nabarmenak, eta Gure Balioak egitasmoak balioa eman eta indartu nahi dituenak.

2020rako, hausnarketa-prozesu bat abiarazi nahi da, saria berrorientatzeko, sendotzeko eta entzute handiagoa emateko.

2. KALITATEAREN ETA SISTEMEN KUDEAKETA

Aurreko urteetan bezala, kalitatea sustatzen jarraituko du DEBEGESA; datorren urtean, gainera, **ISO 9001.2015 Ziurtagiria** lortzea du helburutzat enpresak.

2.1. EFQM

- ❖ Prozesuen araberako kudeaketa
- ❖ Auto-ebaluazioa
- ❖ Barne-komunikazioa
- ❖ Langileen parte-hartzea, inplikazioa eta motibazioa

2.2. 5S PROIEKTUA

- ❖ Barne-auditoretza gurutzatuak

2.3. GAITASUNEN KUDEAKETA

- ❖ Prestakuntza

2020ko Prestakuntza Planean definituko dira berriazko prestakuntza-ikastaroak.

2.4. SISTEMEN KUDEAKETA

Laneko Arriskuen Prebentzioa

Laneko Arriskuen Prebentziorako Mutualiako zerbitzuarekiko harremana eta koordinazioa, espezialitate teknikoetan zein langileen osasunaren zaintzan, ondorengo jarduketekin:

- ❖ Enpresa-jardueren koordinaziorako eta horren zabalkunderako kontuan hartu beharreko irizpideak ezartzea. Larrialdi- eta prestakuntza-plana berrikustea.
- ❖ Ebakuazio-simulazioa.
- ❖ Lanpostuen azterketa, datuak bistartzeko pantailekin.

- ❖ Prebentzio-plana ezartzea.

Adierazlea: Prebentzio-planaren betetze-maila handitzea: egindako/aurreikusitako ekintza kopurua: % 100

Euskara Plana

Ondorengo jarduketak landuko dira:

- ❖ Debegesaren aurkezpen ofizialetan euskararen erabilera handitzea, onetsitako hizkuntza-arauak aplikatuz.
- ❖ Publizitatean euskararen presentzia handitzea.
- ❖ Euskararen Kudeaketa Planaren komunikazioa urtean bi aldiz, egin diren aurrerapenak ezagutzeko
- ❖ Beharren araberako berariazko prestakuntza ematea.
- ❖ Euskararen alorrean bestelako bideak ezartzeko aukera baloratzea –“berbalaguna” proiektua eta beste baliabide batzuk kasu–, Debegesako langileen artean euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko.

Adierazlea: Euskararen Kudeaketa Planaren betetze-maila, helburua: % 85. Euskarako hizkuntza-arauen betetze-maila, % 100.

2.5. BESTE BATZUK

Langileen arloko helburuak

2020rako orduak: urteko 1.670 ordu.

Komunikazio eta marketineko helburuak

Hilero berrikusiko da webgunea, eta sortu ahala edo proiekturen bat abiarazi ahala sartuko dira albisteak.

FUNTSEN JATORRIA ETA APLIKAZIOA**JATORRIA**

Udalek Kudeaketa Planaren bidez:	628.355,79 €
GFA(Foru Aldundiak)	559.051,62 €
Eusko Jaurlaritza	201.262,71 €
Europar Batasuna (europar programak):	134.864,16 €
Enpresak eta beste	141.864,16 €

JATORRIA, GUZTIRA: 1.664.924,85 €**APLIKAZIOA**

Proceso Ayuntamientos:	770.627,16 €
Herritarrak Prozesua:	124.864,16 €
Pertsonak Prozesua:	300.906,00 €
Enpresa Txiki eta Ertainak Prozesua:	468.527,53 €

APLIKAZIOA, GUZTIRA: 1.664.924,85 €

3. LAN ARLOKO ARAUDIA

3.1. DEBEGESAREN ORDAINSARI-SISTEMA

2018ko abenduan, lan arloko ituna edo hitzarmena sinatu zuen enpresak langile guztiakin, 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldia duena.

3.1.1. BALORAZIO-HELBURUAK

Ordainsari-sistema giza baliabideen kudeaketaren alderdi garrantzitsua da, eta pertsonen balorazioa da sistema hori lanpostuekin bat etor dadin erabiltzen den teknika. Honako hauek dira helburuak:

- ❖ DEBEGESAren estrategiekin bat datorren ordainsari-sistema izatea.
- ❖ Mailen eduki profesionalak definitzea.
- ❖ Lanpostuen ordainsariak dagozkien mailalara egokitzea, barne-koherentzia bilatuz eta ordainsaria ingurunera eta egiten den lanera egokituz.
- ❖ Egitura dinamizatuko duen sistema bat ezartzea, profesional egokiak bultzatuz, ekonomikoki eta profesionalki motibatuz eta DEBEGESAn parte-hartzearen eta promozioaren kultura bat sor dadin bide emanez.

3.1.2. ORDAINSARI-SISTEMAREN ALDERDI ERABAKIGARRIEN ANALISIA ETA SISTEMAREN EZAUGARRIAK

DEBEGESA erakunde konplexua da helburuei dagokienez, baina egitura sinplea du. Hala ere, helburuen konplexutasuna dela eta, zaila izaten da emaitzak baloratzea.

- a) Ondoriozko antolaketa-egituraren ezaugarriak:
 - ❖ Prozesuen araberako egitura (Udalak, Herritarren Dinamizazioa, Enpresak, Pertsonak, Kalitatearen eta Sistemen Kudeaketa, Marketina eta Komunikazioa), nahiz eta arlo funtzional operatiboen arabera banatzen den.
 - ❖ Sinergia guztiak aprobetxatuz.
 - ❖ Zentralizatua, enpresa-estragiei dagokienez.
 - ❖ Prozesuka eta arloka, autonomia operatiboa du.
 - ❖ Malgua eta moldakorra.
- b) Errealitate horrek ondorengo **ezaugarriak** dituen profesional-tipologia bat eskatzen du:
 - ❖ Lantalde tekniko dinamiko eta gaitua sail bakoitzean.

- ❖ Beren lan-arloetan berariazko ezagutzak dituenak.
 - ❖ Gaitasun anitzeko teknikariak, orotariko gaitasunak dituztenak.
 - ❖ Taldean lan egiteko gaitasuna eta elkarlanerako jarrera dutenak.
- c) Hauexek dira balorazio horren orientazioa zehazten duten irizpideak:
- ❖ Pertsonalizatua izatea, eta etengabe ebaluatzea.
 - ❖ Malgutasuna eta aldakortasun handia ahalbideratzea.
 - ❖ Pertsonak lortutako emaitzetan inplikatzeta.
 - ❖ DEBEGESAn ordainsari-politika bat sortzea.

3.1.3. LANGILEEN ORDAINSARIA

Araudi honetan jasotako osagaiek osatuko dute langileen ordainsaria, sinatutako enpresako itunean jasotakoari, langileen estatuari eta alor horretan indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Araudi honen ondoretarako, hauexek dira ordainsariekin lotutako kontzeptuak:

- Lanpostuaren garrantzi erlatiboa, antolaketa-egiturako gainerako lanpostuekiko.
- Langileak bere eginkizunetan duen errendimendua eta eraginkortasuna.
- Antzintasuna edo erakundean doan denbora.

3.1.4. ORDAINTZEKOAK DIREN ORDUAK

Lan arloko arauetan urtero horrela ezarrita daudenak izango dira ordaintzeko orduak, benetan lan egindakoak, oporraldiari dagozkionak eta ordaindutako baimen eta hutsegiteei dagozkienak barne.

3.1.5. MAILA PROFESIONALAK

DEBEGESAK maila profesionalak erregulatzeko adostutako sistema bat du, hurrengo urteetan eguneratu dena. Pertsona bakoitzari maila jakin bat esleitzeko, ondorengo oinarritzko parametroetan oinarritutako ebaluazioa egin da:

- ❖ Ezagutza teoriko eta praktikoa zehatzak.
- ❖ Beharrezko esperientzia profesionala.
- ❖ Hartu beharreko erabakien eta burutu beharreko lanen konplexutasuna.
- ❖ Lanpostuak eskatzen duen harreman-maila.
- ❖ Beharrezko autonomia.

- ❖ Araudi honen 1.2.b atalean aitortutako ezaugarriak eta gaitasunak.
- ❖ Progresio- eta promozio-irizpide batean oinarritzen dira maila profesionalak.

3.1.6. ANTZINATASUNAGATIKO PLUSA

Pertsona bat enpresak geratzea antzinasunagatiko plusarekin ordainduko da. Soldataren osagai horrek ez du eraginik lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzearekin, baizik eta DEBEGESAn lanean geratzearekin soilik. Indarrean dagoen legerian eta dagoen enpresa-itunean oinarrituta egingo da ordainketa hori.

3.2. LANTOKIKO LAN ARLOKO ARAUDIA

3.2.1. URTEKO BENETAKO LAN-ORDUTEGIA

1.670 ordukoa izango da 2020rako urteko lan-ordu kopurua.

Langileen beren ohiko lana garatzeko beharregatikoak izango dira nahitaezko presentziaren salbuespenak.

Edozein irteera pribatutarako denbora hartzeko, beharrezkoa izango da **aldez aurretik** DEBEGESAko arduradunari **jakinaraztea** eta bisitatutako pertsonak edo erakundeak emandako egiaztagiria aurkeztea; galdutako denbora hori egunean bertan edo ondorengo egunetan berreskuratu beharko da (irteera pribaturako erabilitako ordu kopuruaren arabera). Irteera pribatutzat jotzen dira:

- ❖ Medikuairengana joateko egindakoak, bajarik hartu gabe.
- ❖ Edozein eratako gai partikularretarako egindakoak.
- ❖ Aurrez jaso ez direnak eta lanpostuan nahitaez eta behar bezala justifikatuta falta izatea dakartenak.
- ❖ Ondore horietarako, enpresa-itunean jasota dagoena hartuko da kontuan.

3.2.2. LAN-EGUTEGIA

JAIK

Urte Berri Eguna	Urtarrilak 1
Errege Eguna	Urtarrilak 6
San Jose eguna	Martxoak 19
Aste Santua	Apirilak 1, 10 eta 13
Langilearen Eguna	Maiatzak 1
San Joan eguna	Ekainak 25 eta 26
Santiago Apostoluaren eguna	Uztailak 25
San Inazio eguna	Uztailak 31
Ama Birjinaren Jasokunde eguna	Abuztuak 15
Jai Nazionala	Urriak 12
Andre Maria eguna	Abenduak 8
Gabonak	Abenduaren 24tik 31ra

ZUBIAK

Martxoak 20
Abenduak 7

OPORRAK

Abuztua: 30 egun natural

<u>EGUTEGIA</u>	<u>8,00 ordu</u>	<u>7,00 ordu</u>	<u>ORDUAK, GUZTIRA</u>
Urtarrila:	15	4	148
Otsaila:	16	4	156
Martxoa:	17	3	157
Apirila:	16	3	149
Maiatza:	16	4	156
Ekaina:	17	3	157
Uztaila:		22	154
Abuztua:	-- OPORRAK --		
Iraila:	18	4	172
Urria:	17	5	171
Azaroa:	17	4	164
Abendua:	12	3	117
	161 egun	59 egun	Orduak: 1.701 ordu

Egutegi hau **erreferentziakoa** da. 1.670 lan-ordu izango ditu 2020. urteak. Banakakoa izango da orduon erregulazioa eta kontrola, gainerako departamentuekin eta Zuzendaritzarekin koordinatuta. Azaldutako egutegiaz beste hartu nahi den edozein jaiegun hartzeko, beharrezkoa izango da Zuzendaritzari gutxienez 15 egun lehenago proposatzea, eta hark hartuko du erabakia, dagoen lan-karga egoeraren eta enpresaren beharren arabera.

Ordutegia

Astelehenetik ostegunera: 08:00etatik 16:00etara

Ostiraletan: 08:00etatik 15:00etara

Uztaila: 08:00etatik 15:00etara (7 orduko laneguna)

Lanegunak: LAN EGIN BEHARREKO ORDUAK, GUZTIRA: 1.670 ORDU/URTEAN

Oporrak

30 izango dira oporretarako egun naturalak (2,5 egun natural, lan egindako hilabete bakoitzeko).

Lanerako Ezintasun Iragankorraren (LEI) tramitazioa

Gaur egun indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

3.3. GASTUEN KONPENSAZIOA

Kilometroak

2020. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, kilometro bakoitzeko 0,456 euro ordainduko zaie enpresako langileei, eta kilometro bakoitzeko 0,318 euro bekadunei eta kanpoko langileei.

Dietak

Langileak, enpresan duen karguaren ondorioz, bere lanpostutik edo etxetik kanpora joan beharra, eta kanpoan bazkaldu, afaldu edo gaua igaro beharra duenean, jasotzen duen konpentsazioa da dieta.

Dieta horien zenbatekoa ezberdina izango da langilea joaten den eremu geografikoaren arabera; ondore horietarako, Euskadi, Estatuko gainerako lekuak eta atzerria bereizten dira.

Fakturen arabera likidatuko dira dietak, behin gastuaren egiaztagiriak aurkeztu ondoren. Inprimatutako paperean aurkeztu beharko dira egiaztagiriak, egin dituenaren IFK zenbakiarekin eta datuekin. Ez da onartuko aurrez adierazitako zehaztapenik ez duen egiaztagiririk.

Beste gastu batzuk

- a) Garraioko eta komunikazioko gastuak

Joan-etorrietarako egin diren gastuei deritzegu horrela: taxiak, aparkatzea, autopistak, etab.

DEBEGESAK gastu horiek ordain ditzan, beharrezkoa izango da behar adina justifikatuta egotea.

- b) Beste gastu batzuk

Agiri bidez justifika ezin daitezkeen gastuak eta gonbidapenak, hain zuzen ere zenbateko oso txikia dutelako, ez dira ordainduko oro har.

Likidaziorako baldintzak

Langileari dietengatiko zein ibilgailuaren konpentsazioagatiko gastuak edo beste gastu batzuk likidatzeko, beharrezkoa izango da:

- a) Langile bakoitzak bere likidazioa egitea, baita gastua hainbat langileren artean egin bada ere. Helburua da pertsona bakoitzak sortutako kopuruak aitortzea, administrazio- eta auditoretza-kontrolerako.
- b) "Bidaien Likidazioa" orria behar bezala betetzea, zera adieraziz: eguna, kilometro kopurua, helmuga, etab. Hau da, orrian ageri diren kontzeptu guztiak.
- c) Zalantzarik izanez gero, administrazioko arduradunari galdetu.
- d) "Bidaien Likidazioko" orri guztiek izan behar dute dagokion arduradunaren "Oniritzia".

3.4. PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Enpresa honen araua da langile guztien artean sustatzea eta erraztea beharrezko prestakuntza- eta birziklatze-ikastaroak, horretarako lanorduak, bidaia-dietak eta egin ditzaketen ikastaroari buruzko informazioa eskainiz. Gai hori arrazionalizatzeko helburuz, sor daitekeen zenbait kasu azalduko dugu.

Ikastaroa, enpresak eskatuta:

- a) Enpresaren kontu izango dira ikastaroari eskainitako orduen % 60; kanpo geratzen dira bidaia-orduak, horiek kilometroen bitartez ordainduta daude.
- b) Bidaia-orduak eta ikastaroaren orduen gainerako % 40ak berreskuratu egin beharko ditu langileak.
- c) Enpresak ordainduko du matrikula, hala badagokio.

Enpresarekin zerikusia duen ikastaroa, langileak eskatuta:

- a) Langilearen kontura izango dira ikastaroari eskainitako orduen % 50.
- b) Langilearen kontura izango dira bidaia-orduak ere, eta enpresaren kontura joan-etorriagatiko kostua eurotan. Enpresak ordainduko du matrikula, hala badagokio.

Enpresarekin zerikusirik ez duen ikastaroa:

- a) Oro har, ez da ordainduko ez ordurik, ez kilometrorik. Langileak berreskuratu egin beharko ditu egin ez dituen orduak.
- b) Kasu bakoitza banan-banan aztertuko du Departamentuko zuzendariak.

Hizkuntza-ikastaroak:

- a) Lanorduetan: enpresak jarriko ditu orduak, eta langileak irakaslearen kostua.
- b) Ikastaroa lanorduetatik kanpo egiten bada, enpresak jarriko du irakaslea.
- c) Kolektibo handietarako, eta kontuan izanda hizkuntzak tresna garrantzitsua direla enpresarako eta langilearentzako, beste aukera batzuk aztertuko dira.

4. GASTU KORRONTE OSOAREN AURREKONTUA

	<u>2.020. urtea</u>	<u>2.019. urtea</u>	<u>2019.</u> <u>urtearekiko</u> <u>aldea</u>
LANGILEENGATIKO GASTUAK	735.170,32	653.575,38	% 12,48
Soldatak eta ordainsariak	561.821 (1)	496.821,41	% 13,08
Geroa	827,40	788,00	% 5,00
Antzinasunagatiko igoera	2.471,28	2.411,00	% 2,50
Bidaia-gastuak	28.751,25	28.050,00	% 2,50
Gizarte Segurantza	136.211,30 (1)	120.540,97	% 13,00
Langileen Prestakuntza	5.088,10	4.964,00	% 2,50
FINANTZA-GASTUAK	1.173,00	1150,00	% 2,00
Bermeengatiko interesak eta beste	1.173,00	1150,00	% 2,00
TSSE	771.485,60	585.864,59	% 31,68
Errentamenduak	18.533,58	18.081,54	% 2,50
Konpontze- eta Kontserbazio-lanak	7.420,49	7.239,5	% 2,50
Ura	1.742,85	1.700,34	% 2,50
Argindarra	11.128,55	9.677,00	% 15,00
Beste enpresa batzuen lanak	708.728,78	544.556,09	% 34,62
Aseguru-primak	17.745,27	17.312,46	% 2,50
Gasa	6.186,08	5.379,20	% 15,00
ZERGAK	1.826,55	1.782,00	% 2,50
GARRAIOAK ETA PLEITAK	651,70	635,80	% 2,50
HAINBAT GASTU	74.236,55	72.119,76	2,94%
Inprimakiak eta paperak	7.095,53	6.956,40	2,00%
Bulegoko materiala	9.382,98	9.199,00	2,00%
Liburuak eta aldizkariak	510,00	500,00	2,00%
Posta-gastuak	1.103,13	1.071,00	3,00%
Telefonia	7.972,96	7.778,50	2,50%
Ordezkaritza-gastuak	1.620,53	1.581,00	2,50%
Aholkularitza-zerbitzuak	16.912,50	16.500,00	2,50%
Garbiketa-zerbitzua	9.696,50	9.460,00	2,50%
Zerbitzu osagarriak	2.659,65	2.533,00	5,00%
Beste gastu batzuk	13.792,34	13.135,56	5,00%
Garapen.	3.490,43	3.405,30	2,50%
INBERTSIOA LAPn	2.531,71	2.470,00	2,50%
INBERTSIOA BERRIKUNTZAN	2.693,19	2.627,50	2,50%
AMORTIZAZIOA	9.918,66	9.676,74,00	2,50%
BEZ AUTO-KONTSUMOA	65.237,77	62.131,00	5,00%
GUZTIRA	1.664.924,85	1.392.032,77	19,60%

628.355,79 eurokoa izango da gastu orokorretarako udalen ekarpena.

(1) 2020. urterako bi pertsona kontratatzea aurreikusten da. Partidan sartuta dago aurreikusitako kostua.

UDALEN PARTE-HARTZEA SENDOTZEA

UDALAK	BIZTANLERIA (2019/01/01)	%	UDALAREN EKARPENA GASTU OROKORRETARAKO	Txirringularitza Kluba*	AISIALDIA ETA TURISMOA	TOKIKO AGENDA	GUZTIRA, 2020. URTEAN	2020 / 2019
DEBA	5.455	7,48	41.390,34		11.376,17	2.243,96	55.010,47	% -1,17
EIBAR	27.600	37,85	209.417,65		9.993,56	11.353,51	230.764,72	% -0,84
ELGOIBAR	11.613	15,92	88.114,75		4.204,19	4.773,11	97.096,77	% - 1,20
ERMUA	15.886	21,78	120.536,55		5.752,09	6.534,85	132.823,49	% -1,69
MALLABIA	1.158	1,59	8.786,44		419,30	476,35	9.682,09	% -1,00
MENDARO	1.999	2,74	15.167,60		723,81	822,31	16.713,72	% -1,97
MUTRIKU	5.334	7,31	40.472,24		11.123,83	1597,72	53.790,26	% -1,56
SORALUZE	3.884	5,33	29.470,22		1.406,34	1.597,72	32.474,28	% -1,71
TOTAL	72.929	100,00	553.355,79		45.000,00	30.000,00	628.355,79	% -1,24

* 2020. Urtean ez dago Txirringularitza Kluberako partida operatiborik

